PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Berriozarko Hilerria

Hilerri hau Berriozarren dago,
Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Berriozar non dagoen ikus dezakezu.

1936. urteko Estatu Kolpea eta gero
frankistek San Kristobal Gotorlekua
frankismoaren aurka zeuden
pertsonak espetxeratzeko erabili zuten.
Frankistek pertsona hauetariko asko hil zituzten.
Beste asko gaixotasunengatik bertan hil ziren.

Gotorlekutik gertu dagoen
Botilen Hilerria ireki zen arte
Berriozarko hilerria
oso leku garrantzitsua izan zen
bertan frankistek San Kristobal Gotorlekuko
preso asko lurperatu zituztelako.

Frankistek Berriozarko hilerrian
47 pertsona lurperatu zituzten.
Hauetatik 26 pertsona
San Kristobal Gotorlekuan hil ziren gaixotasunen erruz.

Gainontzeko 21 pertsonak
frankistek hil zituzten
1936ko azaroaren 1ean.
Frankistek esan zutenaren arabera
pertsona hauek San Crístobal Gotorlekutik
ihes egiten saiatzeagatik hil zituzten.

2009ko ekainean
Berriozarko Udalak
eta Txinparta San Kristobaleko Fuertea elkarteak
plaka bat jarri zuten
hilerrian bertan lurperatu zituzten
47 pertsonak gogorarazteko.

2022ko maiatzean
Memoriaren Nafarroako Institutuaren
Desobiratzen Programaren barruan
Aranzadi Zientzia Elkarteak
hilerrian desobiratze bat egin zuen.
San Kristobal Gotorlekuko
23 presoen gorpuzkiak aurkitu zituzten.

Hemen Berriozarko hilerrian dauden
plaken argazkiak ikus ditzakezu:



